

Jaietako lehenengo asteburuari ekiteko prest



Durango • Durangarrak jaietan murgilduta daude martitzen iluntzetik eta zalapartak ez du etenik izango datozen asteburu bietan. Patxikotxu eta Pantxike bueltan dira, herritarrek alaitzera etorrita. Aurretik, pertsonaia biek elkarregaz egin dute kalejira herriko kaleetan zehar. Txupinek eraso matxisten kontrako mezu argiak utzi dituzte. • **5**



'Karropoteo transmaribibolloa', LGTB komunitatea ikusgai egin eta saretzeko

Durango • Durangoko LGTBQ+ komunitateko kide batzuek Kuir Eztanda taldea sortu dute. Zapatuan egingo dute lehenengo ekintza, karropoteo transmaribibolloagaz. Poteoak Pinodotik irtengo du, 18:00etan. "Araua apurtzera gatoz, herritarrek ikusi behar dute Durango ez dela hetero bakarrik", diote. • **4**

Durangoko Azoka ohiko formatua berreskuratuta bueltatuko da



Durangoko Azoka • Ruben Ramos diseinatzailearena da 57. Durangoko Azokaren irudia. Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda irudikatu du kartelean, bing bang bat balitz lez. Abenduaren 7tik 11ra bitartean izango da Durangoko Azoka. • **19**



Elkarretaratzea pediatria zerbitzu "duina" eskatzeko

Elorrio • Urriaren 21ean elkarretaratzea egingo dute Elorrioren pediatria eta osasun zerbitzu hobekuntza eskatzeko. • **11**

DURANGO

HIZKUNTZA

ESKOLA OFIZIALA

Zuzendaria: Kelen, T. 40000 Durango - 910004041@hizkuntza.net
945 21 08 05 - www.anboto.org/hizkuntza.net

72,36€

EMAN IZENA • EMAN IZENA • EMAN IZENA • EMAN IZENA • EMAN IZENA

MATRIKULA ZABALIK

Talde presentzialak eta ordipresentzialak

Ziurtagiri Ofiziala

Deutsch • English • Euskara • Français

NEOI



Esteban Iparragirre Otelain
Olazarreko antolatzailea
EIBAR | 1962

Enrike Agirrebeitia Urtiaga
Olazarreko antolatzailea
BERRIZ | 1950

“Salamancako eta Ezkaraiko jendeak esan digu Olazarreko partiduak Internetez ikusteko elkartzan direla”

Zaldibarko pilota txapelketa beteranoa garai berrietara egokitu da pilotazaleengana heltzeko. 2020tik hona, hainbat jaialdi Youtuben zuzenean ematen dute. Datorren asteko eguenetik aurrera 'anboto.org' webgunean ere ikusi ahalko dira

ZALDIBAR • JOSEBA DERTIANO

Enrike Agirrebeitia eta Esteban Iparragirre Zaldia Kirol Elkarteko eta pilota taldeko kideak dira. Besteak beste, euren lanari eskerrak batzen dira urtero-urtero Euskal Herriko pilotari afizionaturik onenak Zaldibarren. Atzoko eta gaurko kontuei buruz galdetu diegu.

Olazar, orain Youtuben ere bai. Zelan sortu zitzaizuen ideia?

Enrike Agirrebeitia: Behin, Donostian, Antiguoko txapelketako partidu bat ikusten nengoela, antolatzaileetarikoa batek, Jose Mari Oterminek, esan zidan etorkizuneko bidea hortik ikusten zuela. Hedabideen zain egon beharrean, geu zuzenean heldu pilotazaleengana. Otermin EITBko programen zuzendaria izandakoa da. Probatzea erabaki genuen eta 2020an egin genuen lehenengo emankizuna.

Eta harrezkero ez zarete geratu.

Esteban Iparragirre: Iaz sei emankizun

egin genituen eta aurten hamai-ka egingo ditugu, bost gehiago. Lehenengoa, urriaren 20an. Koldo Aldalur da esataria eta Enrike komentaria.

Harrera ona dutelako hainbeste emankizun?

E.A.: Harrera ona dutelako eta publizitatea hobeto saltzen delako. Batzuek esan izan digute: "Zuen buruaren kontra zabiltzate, jende gutxiago joango da frontoira". Baita, baina zazpi lagun gutxiago etorri arren, Interneten 700 lagunek zuzenean ikusten bagaituzte... Eraginkorragoa da. Bideo batzuek 3.000 bisitatik gora dituzte. Ezkaraiko [Errioxa] eta Salamancako [Gaztela eta Leon] jendeak esan digu partiduak zuzenean ikusteko batzen direla.

Egin dezagun denboran atzera, Olazarreko sorrerara. Zergaitik erabaki zenuten pilota txapelketa sortzea?

E.A.: Akorduan dut ideiak zelan irten zuen. Behin, afizionatuetako

txapelketa bateko partidua jokatu nuen Mungian. Gallastegi palista ere han zegoen, partiduak ikusten. Frontoiko giroa ikusita, "zergaitik ez dugu Zaldibarren antzerako zeozer egiten?" proposatu zidan etxera bueltan. Zaldia Kirol Elkarteko zuzendaritzara eraman genuen ideia. Pedro Mari Garitaonandiak, Estanis Gallastegik, Joaquin Maiztegik eta laurok osatzen genuen zuzendaritza, eta pilota adarreko arduraduna Javier Zuloaga zen. Gune hartan eman genion ideari gorputza. 1980an antolatu zen lehenengoz, frontoi zaharrean. Orduan, Zaldibarko Eskualdeko Txapelketa deitzen zen.

Txapelketa frontoi zaharrean antolatzek zer erronka zekartzan?

E.A.: Ez zuen orainoagaz zerikusirik. Frontoi irekia zen. Durangoko estazioan toldoak alokatu eta frontoian ipini genituen, euritik babesteko. Horrela hasi ginen. Gogoan dut sarrera ehun pezeta zela. Bada, sarreraren diruagaz txapelketa finantzatu eta toldo berriak erosi genituen.

Frontoi berria egitea mugarrria izan zen txapelketarako?

E.A.: Bai. Orduan, Zaldibar indartsu zebilen pilotan. 1976an, 1978an, 1979an eta 1986an Bizkaiko Herri Artekoa irabazi zuen. 1976an Euskal Herrikoa ere bai. Fronto berria aspaldiko eskaria zen eta emaitza horiek lagundu egin zuten. Fronto berria aupada bat izan zen Zaldibar-ko pilotarentzat. 1988an antolatu genuen lehenengo txapelketa Olazar izenagaz frontoi berrian.

“Lehen aldian gogoan dut sarrera ehun peseta zela. Sarreraren diruagaz txapelketa finantzatu eta toldo berriak erosi genituen”

Biharko Izarrak txapelketa Mallabian eta Olazar Zaldibarren erreferenteak dira Euskal Herrian. Cafés Baqué txapelketak ere sasoi bateko loria berreskuratu gura du. Eremu txikian hainbeste txapelketa inportante izatea onuragarria da ala elkar zapaltzeko arriskua dago?

E.I.: Txapelketa bakoitzak bere datak baditu ez dut arriskurik ikusten. Horixe da inportantea, datetan bat ez egitea.

E.A.: Durangaldeko pilotazaleentzat ona dela uste dut. Eta beste txapelketa batzuk Youtube bidezko emankizun txukunak egiten hasiko balira, pilotarako afizioa handitzen lagunduko lukeela uste dut.

Gerora profesionaletan debutatuko zuten pilotari askok jokatu dute Olazarren. Euretarioren baten erakustaldirik gogoratzen duzue?

E.A.: Makina batenak. Askoren kasuan, igartzen zen profesionale-tara helduko zirena. Nik uste dut pilotazaleen iruditegi kolektiboan gehien gogoratzen den pilotakada Iñaki Esainek besagain jota pilota errebotean sartu zueneko delat. 1997an izan zen. Aldi hartan, Esain eta Otxandorena azpitxapel-dun geratu ziren.

E.I.: Eta kontrako kasu bat ere gogoratzen dut. Gaur egungo atzelaririk onenetarikoa, onena ez bada, Jose Javier Zabaleta da. Bada, Olazarren benetan eskas aritu zen. Kolpea orduan ere ikusten zitzaioan, e? Baina partidu txarra irten zitzaion.

E.A.: Sortu zen giroagaitik, 1991ko finala ere aipatuko nuke, Lejardi-Azkarate eta Urionaguena-Fernández bikoteen artekoa. Tartean bertoko pilotariak zeudenez, giro itzela egon zen. Final berezia izan zen.

Finalak Gabon zahar egunean izaten dira. Data kuriosoa da.

E.I.: Hasieran beste egun batez jokutzen zen. Baina, behin, Gabon zahar egunez partidu bat ikusi nuen Bilbon. Palako pilotari bat zestako beste baten kontra. Giro itzela egon zen, frontoia lepo. Futbolik ez, bestelako hitzordurik ez... denak frontoira. Garbi ikusi nuen Olazarreko data aproposa zela.

ZALDIBAR • J.D.

Enrike Agirrebeitiak eta zuk aspalditik elkar ezagutzen duzue, ezta?

Bai. 25 urtez lan egin dut ETBko kirol sailean. Hor klasiko bat zen urteko azken emankizuna Olazar txapelketa izatea. Gabon zaharretan grabatu eta urteberri egunean ematen genuen. Enrike hortik ezagutzen dut. Horrez gainera, pilotariekin, kazetari batzuekin... kuadrilla bat batzen ginen, batzuetan, pilotan jokatzeko. Noizehan behin neu ere azaltzen nintzen, eta Enrike finkoenetariko bat zen. Beraz, txapelketako antolatzaile eta esatari ez ezik lagunak ere bagara. Horregatik joaten naiz gaur egun Zaldibarrera emankizunak egitera. **Ideiak hasieratik konbentzitu zintuen?**

2015era arte kiroletara dedikatu nintzen erabat. Harrezkero, albigtegieta ari naiz lanean. Egia esan, emankizunen magia horren falta sumatzen nuen. Proposatu zidanean, alde batetik pentsatu nuen gaizki zetorkidala ordutegi aldetik, jardunaldiak berandu samar direlako [21:30ean, eguenero]. Azpeititik joaten naiz bertara. Baina, beste alde batetik, emankizunen premia hori sentitzen nuen. Gainera, Enrike laguna dut eta lagunak ditudan tokira joaten naiz.

Zure ustez, zer pisu dauka Olazarrek pilotaren munduan?

“Pilotarientzat ohore bat da Olazar irabaztea, urtea amaitzeko dagoen modurik onena”

Koldo Aldalur kazetari ezagunak egiten ditu esatari lanak partiduetan, 'Youtube Zaldibarko Udala' izeneko kanaletik

Erreferente bat da. Hasieran, afizionatu mailako torneoen boom handi bat bizi izan genuen. Sasoi batean, toki askotan izan ziren txapelketak. Gerora, beherakada bat etorri zen, baina Olazarrek jarraitu egin du eta bere mailari eutsi dio, baita pandemia garaian ere. Esango nuke pilotari guztiek jokatu nahi dutela Olazarren, beste txapelketa batzuetan bezala: Diario Vasco, Zumaiakoa... Oso garrantzitsua zen Elgetako lau t'erdiko torneoak desagertu zenean, bizirik irauten zutenek enkantu berezi bat hartu zuten. "Begira, hauek eutsi egiten diote". Eta ez dago jakiterik ere zenbat lan egin behar den txapelketa hauek aurrera ateratzeko. Ordu asko eta, sarritan, esker txarreko lana.

Olazarren ikusi dituzun partidu guztietatik badago baten bat buruan iltzatuta geratu zaizuna? Emozioa gaitik, erakustaldiren batengaitik...

Ez dut partidu bat bereziki gogoratzten. Pena sentsazioa gehiagotan sentitu dut, ondo atera ez diren

partiduengatik: pilotariren bat lesionatu denean, ez dutenean euren maila eman... Kontuan hartu behar dugu lau t'erdian pilotari gazteak aritzen direla, eta, horrexegatik, oraindik egin gabeko pilotariak izaten dira. Binakakoan, berriz, profesionaletan bukatu duten pilotarietako asko igaro dira Olazarretik. Orokorrean, oso maila handiko finalak izaten direla uste dut. Palmasesari erreparatuta, askok profesionaletan bukatu dute; eta bukatu ez dutenak afizionatu mailan aritu dira. Ildo horretatik, gogoeta txiki bat egin nahi nuke. Ez dakit askotan profesionaletara pasatzeak merezi duen, garai honetan afizionatueta zelako maila dagoen ikusita. Seguru nago pilotari askok ospe, diru eta txapel gehiago izango luketela afizionatueta, bizimodu hobea azken batean. Nire hausnarketa bat baino ez da, baina horrelako torneoek indartu egiten dute nire teoria. Olazar irabaztea ohorea da pilotarientzat, urtea amaitzeko dagoen modurik onena.



Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira

Batu Anbotoko

Whatsapp taldera!



anboto

Heldu da "dantzatzeko eta eztarria lehortu arte kantatzeko" momentua

Hasi dira Durangoko jaiak. Udaletxeko zein txosnaguneko txupinek erasoen kontrako mezuak eta ahizpatasunaren aldekoak utzi dituzte. Asteburu luze bi datoz aurretik



Durangarrek asteburu bi dituzte aurretik jai egarria asetzeko.

DURANGO • E.H./J.D.

Zalaparta, jai giroa eta umore ona Durangoko kaleez jabetu dira. Martitzen iluntzetik hasita, durangarrak aste eta erdi iraungo duten jaietan murgilduta daude. Pantxike, txosnetako pertsonaia, izan zen jai giroa ekartzen lehenengoa. Bilgune Feministako kideek haren begiradapean jaurti zuten txupina. Elkarateak 20 urte bete ditu eta "oso harro" dago egindako ibilbideagaz. "Konbentzituta gaude herri mugimendua dela Euskal Herri feminista eraikitzeke tresna", esan zuten pregoian. "Asko dira egindako aurrerapausoak. Eraso matxisten kontrako borroka da egiten dugun lanik agerikoena: protokoloak, erasoei erantzutea, gaueko manifestazioak...", esan zuten. "Amaiera urrun" ikusi arren, elkarateak

argi du bidea, baita jai hauetan ere. Bilgune Feministak eta txosnagunak ez dute eraso matxista, transmaribibollo eta arrazistarik onartuko. Gizonezkoentzat ere mezu argia utzi zuten: "Egoten ez badakizu, ez etorri".

"Konbentzituta gaude herri mugimendua dela Euskal Herri feminista eraikitzeke tresna"

Jaiak eguazten arratsaldean jarraitu zuen, udaletxeko balkoitik botatako txupin nagusiagaz. Durangoko mugimendu sozialetan ibilbide nabarmena duten kide bik bota zuten txupina, Marisa Barrenak eta Amparo Ereñagak.

Eurei adi, udal plazan, jendetza. Eta Patxikotxu eta Pantxike ere bai, biak batera, lehenengoz. "Hementxe gaude feminista euskaltzaleok!" aldarrikatuz hasi zuten pregoia txupinerek. "Urteetan berdintasunaren alde eta erasoen kontra borrokan dabilzan andrak goraipatu eta omendu gura ditugu gaur. Eskerrik asko bidelagun izan zareten feminista guztioi", jarraitu zuten. Era berean, Durango euskaldunago baten alde lanean dabilzan "euskaltzale guzti-guztiak" gogoratu zituzten. Horregaz batera, "beste herri batzuetatik, beste lurralde batzuetatik etorri direnekin" partekatu gura izan zuten "momentu magiko" hori. Biek ala biek erasoen kontrako aldarri ozena egin zuten udaletxetik, Durango osora.



Txosnaguneko txupina bota aurreko une bat.

Eraso sexisten kontrako gunea eta arreta telefonoa ipini dituzte martxan

747459584 telefonoan jaietan gertaturiko erasoen berri eman daiteke. Zenbakia hilaren 12tik 16ra eta 21etik 23ra egongo da erabilgarri, 24 orduz

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eta Txosna Batzordeak eraso sexisten kontrako gunea ipini dute. Udalak 747459584 telefonoa ipini du herritarren eskura. Zenbakia 24 orduz egongo da erabilgarri, baten batek erasorik jasan badu edo erasoren bat ikusi badu biktimari laguntzeko. Telefono hori urriaren 12tik 16ra eta 21etik 23ra egongo da erabilgarri. Horrez gainera, Txosna Batzordeak Gune Morea ipiniko du txosnagunean. Urriaren 14an, 15ean, 21ean eta 22an egongo da zabalik, 22:00etatik 01:00etara.

Itaiaren etxeratze kolektiboak
Itaia antolakundeak etxeratze

kolektiboak antolatu ditu goizaldeko ordu txikietan Durangoko jai gunetik etxera doazen emakumei laguntzeko. Antolakundearen berbetan, "jai-eredu kapitalistan" testuinguru "ezin hobea" sortzen da eraso horiek gertatu daitezten, eta erasoei "urgentziaz" erantzun behar zaiela gaineratu du. Etxeratze kolektiboak Durangoko jaiak barne hartuko dituen bariku bietan eta zapatu bietan egingo dituzte. 02:00etan barikuetan, eta 02:00etan eta 05:00etan zapatuetan. Etxeratze-ko irteera puntua garai bateko Sapuetxearen aurrealdea izango da. Bertan izena eman gura duenak zabalik du horretarako aukera, 688846841 telefonoan.

Txapligoak murriztu dituzte jaietan, "animaliak eta horien beharrizana dutenak gogoan hartuta"

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak jakinarazi du bertan behera utzi duela jaietako hainbat ekitalditan txapligoak botatzeko asmoa. Jai ei hasiera ematen dieten suziriak eta amaierakoak baino ez ditu mantenduko. Orain hiru urte hasitako bidean "sakondu" gura duela adierazi du udalak. 2019an, adibidez, etenaldiak agindu zituen barraketako musikan, sentsibilizazio berezia duten umeek atrakzioez gozatzeko aukera izan zezaten. Aurten ere antzeko neurri bat hartuko du, kasu honetan "animaliak eta ho-

rien beharrizana dutenak gogoan hartuta".

Erabaki berri hau itsu-txakurra darabilen durangar baten kexatik ailegatu da. Halantxik kontatu dio Elisabete Berasaluze bizilagunak ANBOTOri. "Txapligo bat dagoen aldiro txakurrak beldurtu egiten dira, blokeatu egiten dira eta, nire kasuan, gida-txakurrak orientazioa galtzen du. Adinean aurrera egin ahala, txakurrak sentibera- goak dira ezta-ndak tinpanoan sortzen dien minarekiko. Hurrengo eztanda noiz entzungo zain geratzen dira, antsietateagaz", adierazi

du Berasaluzek. Dena dela, argi utzi du ez zaiola berari bakarrik gertatzen. "Hau guztia animaliak dituzten herritarrengana zein sentsibilitate berezia duten herritarrengana hedatzen da", gaineratu du. Bizilagun durangarrak adierazi duenez, udalak 7:30etik 9:30era bota behar zituen txapligoak hasieran. "Orain, badirudi ez dituztela botako", argitu du.

2019tik hona, Berasaluzek hiru eskari erregistratu ditu Herri- tarrentzako Arreta Zentroan, txapligoen erabilera erregulatze- ko. "Orain arte horma moduko

bat topatu dut, baina, kasu honetan, benetan eskertzekoa da udalaren jarrera. Pozarren nago. Arduratsuak izan dira. Gaiari serio- tasunez heldu diote eta espero dut aurrerantzean ere bide horretatik jarraitzea. Ea txapligoen erabilera erregulatzen duten.

Azken finean, hau guztia bizi- modua eramangarriagoa egitea da. Jende askorentzat beharbada ezezagunak izango dira horrelako egoerak, baina, neurriak hartuta, iruditzen zait gaia gizarteratu eta sentsibilizazioa lantzen dela", amaitu du.



Aurtengo San Fausto jaietako txupinazoa.

"Durangoko Udalak ausardia politikoa izan beharko luke jaietako ekitaldietatik animalien erabilera oro kentzeko"

Gorka Unzalu eta Silvia del Amo Durangaldea Antiespezista plataformako ekintzaileak dira. Joan zen asteburuan manifestazioa egin zuten Durangon

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Animalien eskubideak aldarrikatzeko manifestazioa egin duzue Durangon. Zeintzuk dira aldarrikapen nagusiak?

Silvia del Amo: Inoren esklabo ez izateko eskubidea aldarrikatu dugu, inork erabilia ez izateko eskubidea. Sokamuturra, adibidez, esplotazio kasu bat da. Animalia bat erabiltzen da gizakiaren dibertimendurako. Ganadutegiak etekin ekonomiko bat ere lortzen du animaliagaz heririk herri ibilita. Okelatarako ere erabiltzen dira, esnetarako. Azken finean, animalien erabilera oro-korraren atzean espezismoa dago, animaliak objektu lez tratatzea gure probetxurako. Arazoaren erroa hori izanik, espezismoari amaiera ematea da dagoen aukera bakarra. Esango dute sokamuturran bigantxe tratatu ona jasotzen dutela. Bai, emango dizkiote musuak gura baduzu, baina kontua da animalia horrek tratatu ona jaso zein ez, ez duela zertan hor egon. Naturan egoteko jaio da, zelaian. Animalien erabilerari amaiera emateko modu



Gorka Unzalu eta Silvia del Amo.

bakarra haiek ez erabiltzea da. Ez janda, haiengandik eratorritako produktuak kontsumitzeari utzita, esperimetaziorako erabiltzeari utzita. Alternatiba begano egitea da. **Zuen aldarrikapenak gai zabal bati lotuta daude, baina mobilizazioa**

Durangoko jaien atarian egin duzue; hain zuzen ere, Zezenak Dira eta halako egitasmoen atarian.

Gorka Unzalu: Zezena animalia da eta bere eskubideak ditu. Herritarrei ulertarazten badiegu zezena sokamuturran erabiltzea txarto dagoe-

la, beharbada interpretazio hori bera beste esparru batzuetan ere egingo dute. Ikusiko dugu ea joerak aldatzen diren. Alde horretatik, iruditzen zaigu Durangoko Udalak ausardia politikoa izan beharko lukeela jaietako ekitaldietatik ani-

malien erabilera oro kentzeko.

Aurten ez dago zezen-plazarik.

G.U.: Hala da. Dena dela, nik ulertu dudanagaitik, ez da udalak halan-txik erabaki duelako. Antza, antolatzaileek eurek erabaki dute ez ipintzea. Horrez gainera, poneyen ibilaldia eta arrantza lehiaketa daude egitarauan. Horiek ere badira esplotazio ereduak.

Zuen iritziz, zelakoa da animalien eskubideekiko Durangaldean dugun kontzientzia?

G.U.: Gainerako lekuetakoaren modukoa. Frogatuta dago animaliek minari ihes egin eta plazera bilatzen dutela. Euren ongizatea bilatzen dute, askatasunean bizi-tzea. Makinak balira lez tratatzen ditugu. Esnea emateko makina lez, gaztaia emateko makina lez.

S.A.: Animaliak erabili barik eta hil barik ere ederto bizi gaitzek. Inor ez da bestea baino gehiago. Mundu honetan elkarregaz bizi-tzeko gaude, bizitzako plazerez gozatzeko. Guretzat gura ez duguna ez dezagun bestekin egin.

El Cojo eta Singing Munch tabernak irabazle Zornotzako Jan Alai pintxo lehiaketan

Zerbitzaririk profesionalenaren saria Berezi kafetegiko Kontxi Iruarizagak irabazi du. 250 euroko saria lortu du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Joan zen asteburuan Jan Alai pintxo lehiaketaren IX. edizioa jokatu zen Zornotzan. Pintxorik berritzaileenaren saria El Cojo jatetxeak irabazi du, Txan-txan izeneko pintxoagaitik. Establezimenduak 1.000 euro, txapela eta garaikurra eskuratu ditu. Bes-

talde, Singing Munch tabernako Singing Pork pintxoak pintxo herrikoiaren saria irabazi du. 1.000 euro, txapela eta garaikurra lortu ditu tabernak. Azkenik, zerbitzaririk profesionalenaren saria Berezi kafetegiko Kontxi Iruarizagak irabazi du. 250 euro lortu ditu.



Aurtengo pintxoak jan dituztenetarik batzuk, Venecia tabernako pintxoagaz.



Ardi txakurren erakustaldi bat, Axpen. TXELU ANGOITIA

Ardi txakurren erakustaldia asteburu honetan, Garain

Aitor Urien, Angel Azkorbebeitia eta Jose Ramon García artzainek ofizioaren inguruko azalpenak emango dituzte

GARAI • EKAITZ HERRERA

Domekan gaur egungo artzaintzaren eta ardi txakurren lana ezagutzeko aukera egongo da Garain. 11:30ean, Aitor Urien artzain abadiñar gazteak lehen sektorearen gorabeherak azalduko ditu, bere esperientziatik. Gero, Angel Azkorbebeitia eta Jose Ramón García artzainek txakurrak ardiak gobernatzeko

eta lehiaketetarako zelan prestatzen diren azalduko dute. Horrez gainera, gertuko produktuak dastatzeko eta erosteko aukera egongo da. Jardueran debalde parte hartu ahalko da, baina izena eman beharko da, 673005981 telefonoan. Ekitaldia Gerediagak eta Garaiko Udalak antolatu dute, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

Komunitateen irisgarritasuna eta fatxadak hobetzeko laguntzak, Iurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretan etxebizitzaren fatxadak konpontzeko eta komunitateen irisgarritasuna hobetzeko diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago, datorren urriaren 28ra bitartean. Halaxe jakinarazi dute udal arduradunek. Diru laguntza horietarako, Iurretako Udalak 25.000 euroko diru pol-tsa lotu du.

Laguntza jasotzeko, obrak 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean amaituta egon beharko dira, eta nahitaezko lizentzia izan behar dute. Era berean, fatxadako obretan, fatxada osoa konpondu edo berritu beharko da eta eremu publikotik ikusten dena izan beharko du. Bestalde, obrak 30 urte baino gehiago dituzten eraikinetan egin beharko dira. Obra gauzatzeko justifikatutako gastuaren %20a arte finantzatu ahalko da.

Eskariak Herriarren Arretarako Zerbitzuan bideratu daitezke, edo bestela www.iurreta.eus atarian.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

URRIKO SARIAK



Mendigoikoa Bekoa jatetxean bi
pertsonentzako eguneko menua.

Hitz liburu dendako liburuak:



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Dendak Bai elkarteak 20, 50 eta 100 euroko opari txartel digitalak ipini ditu erosleen eskura

Durungaldeko 150 establezimendutan erabili ahalko dira. Txartelagaz ordaintzen dutenek mugikorrak ordainduko dute

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Dendak Bai merkatarik elkarteak *durangooparitu.eus* izeneko ataria zabaldu du asteon. Webgune horretan 20, 50 eta 100 euroko opari txartelak ipini ditu eskuragarri. Merkatarien elkarteak azaldu duenez, txartela erosi ondoren berau mugikorrera deskargatzen da. Eta

sistemari atxikitako establezimenduetan erabili ahalko da, zenbatekoa agortu arte.

Dendak Bai txartel digitalaren abantailak azpimarratu ditu. Euren esanetan, "opari ezin hobe da zer oparitu ez dakigun kasuetarako edo eskudiruzko oparien alternatiba lez". Horrez

gainera, "txartelak mota guztietako establezimenduetan" erabili daitezkeela adierazi dute: "Tabernetan, lore-dendetan, moda-dendetan, ile-apaindegietan,

"Opari ezin hobe da zer oparitu ez dakigunean edo eskudiruzko oparien alternatiba lez"

liburu-dendetan,...", eta txartelagaz ordaintzen dutenek "mugikorrak ordainduko dute, beste edozein txartel balitz lez, eta establezimenduek momentuan bertan jasoko dute erosketaren zenbatekoa", azaldu dute. Guztira, Durungaldeko 150 establezimendutan erabili ahalko da opari txartel digitala.



Durangoko kale bat.

San Fausto jaiak ospatuko dituzte Berrizko Eitua auzoan

Donien Atxa jasoko dute bihar, urriaren 15ean eta ondoren, Broken Brothers Brass Band taldea izango da

BERRIZ • J.G.

Berrizko Eitua auzoan San Fausto jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Bihar, urriak 15, Donien Atxa jasota jaiak martxan jarriko dituzte. Ondoren, Broken Brothers Brass Band talde iruñearrak giroa alaituko du. Antolatzaileek azaldu dutenez,

hurbiltzen diren guztientzako jatekoa eta edatekoa egongo da.

Domekan berriz, 12:00etan meza izango da. Ondoren, Iremiñe dantza taldeak erakustaldia eskainiko du. Urtero legez odoloste goxoak banatuko dituzte bertaratzen direnen artean.



Broken Brothers Brass Band.

Biziraun elkarteak suizidioari buruzko berbaldia emango du Zaldibarren

ZALDIBAR • J.G.

Biziraun elkarteak berbaldia emango du urriaren 24an, 18:30ean Zaldibarko liburutegi zaharrean Bizitza sustatzeko suizidioa prebenitu izenburu-

**Berbaldia urriaren 24an,
18:30ean Zaldibarko
liburutegi zaharrean
izango da**

pean. Zaldibarko euskara zerbitzuak antolatuko du berbaldia. Hizlariak Biziraun elkarteak kideak izango dira. Biziraun maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkarte da.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA - Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE ARROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Malztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Otxandion Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute zapatu honetan

Eskualdeko hainbat taldetako dantzariak dantza saioa egingo dute Otxandioko plazan



Dantzari Dantza eta erregelak dantzatuko dituzte.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Zapatuan Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute Otxandion. Berrizko, Iurretako, Abadiñoako eta Otxandioko dantzariak eta dantza taldeak batuko ditu aurtengo aldiak. Ekimena Otxandioko Urduri dantza taldeak antolatu du, udalaren laguntzagaz.
Dantzariak Andikona plazan elkartuko dira, 17:30ean, eta familia argazkiak aterako dituzte. Ondoren, 18:00 inguruan, kalejiran irtengo dute, Andikonatik herriko plaza nagusiraino. Plazan, talde bakoitzak bere tokia hartu eta denen artean dantza saioa egingo dute, ikuskizuna jarraitzera berta-

Berrizko, Iurretako, Abadiñoako eta Otxandioko dantza taldeak batuko dira

ratzen direnen gozagarri. Dantzari Dantza eta Erregelak dantzatuko dituzte.

Erromeria
Dantza saioaren ondoren, luntxa egongo da parte hartzaileentzat. Azkenik, diskofestak eta plaza dantzek girotuko dute iluntzea, eguna dantzan agurtzeko.

Otxandioko Udalak laguntza emango die diru iturri mugatua dutenei

OTXANDIO • J.D.
Otxandioko Udalak diru laguntza emango die diru iturri mugatua duten familiei, eskolako zein eskolatik kanpoko jarduerak finantzatzeko. Izan ere, "haurren arteko hezkuntza eta giza harremanen espazioa ez da bakarrik eskola orduetara mugatzen", udal arduradunen esanetan. Neurri honen helburu

Haurren eskolako zein eskolatik kanpoko jarduerak finantzatzeko izango da diru laguntza

nagusia egoera sozioekonomiko estua bizi duten familietako haurrek gainerako umeekin eskolako irteeretan eta eskolatik kanpoko jardueretan parte hartzea ahalbidetzea da. Diru laguntza jardueraren kostuaren %100ekoa izango da, familiek jasotzen duten errenta udalak ezarritako mugatik beherakoa bada.

Alboka eta pandero eskolak eman gura dituzte Izurtzan

Herrian interes nahikorik ba ote dagoen jakin gura du

IZURTZA • J.D.
Izurtzan bizi den herritar batek alboka eta pandero eskolak eman gura ditu Izurtzan. Musika instrumentu bietan aditua da eta, besteak beste, alboka eskolak ematen aritu izan da Durangon, urte askoan. Orain, Izurtzako Udalaren bitartez, herrian berdina egiteko interesa erakutsi du. Erabilera anitzeko eraikinean emango lituzke ikastaroak. Proposame-

na errealtate bihurtu aurretik, udalak herritarren artean klase horiek hartzeko interes nahikorik ba ote dagoen jakin gura du. Horrela, alboka edo pandero eskolak hartu gura dituzten herritarrek udaletxera joan daitezke euren interesa erakustera. Gutxiengo jende kopuru bat batzen bada ikastaroa antolatzeko aukeraz go-goeta egingo dutela adierazi dute udal arduradunek.



Eskolak hartu gura dituzten herritarrek udaletxean jakinarazi dezakete.



Puro Relajok kontzertua joko du urriaren 21ean Mañarian

Talde nafarrak Mexikoko doinuak ekarriko ditu Mañariko plazara 18:00etan hasiko zen zuzenekoan

MAÑARIA • J.D.
Urriaren 21eko barikuan Santa Ursula eguna ospatuko dute Mañarian. 13:00etan meza egongo da eta 14:30ean herri bazkarian batuko dira. Arratsaldean musika izango da nagusi. 18:00etan Puro Relajo talde nafarrak zuzenekoa emango du. Kontzertua plazan izango da eta euria egiten badu

frontoira tokialdatuko dute ekimena. Oibar herrian sorturiko taldea ezaguna egin da azken urteetan, rantxerak eta musika mexikarra biziberritu dituelako. Euskal abesti tradizionalak ere tartekatzen ditu kontzertuetan. Euren azken lana 2020koa da, beste 14 taldegaz elkarlanean kaleraturiko disko bikotza.

Mallabian martxan da izen-ematea Urriko jaietan txosnak ipintzeko

MALLABIA • J.D.
Urriaren 28tik 30era Urriko jaiak ospatuko dituzte Mallabian. Jai ezagunak dira herrian, ekimenez beteriko hiru egun antolatzen dituztelako eta musika talde ezagunak ekartzen dituztelako. Egunotan oraindino egitarauko xehetasun batzuk lo-

Urriaren 18ra arte aurkeztu daitezke Urriko jaietan txosna ipini ahal izateko eskaerak

tzen ibili direla azaldu dute udal arduradunek. Horregaz batera, jaien harira txosna ipini gura dutenek dagoeneko zabalik dute izen-ematea, udaletxean. Urriaren 18ra artekoa da eskaerak aurkezteko epea. Herriaren alde lan egiten duen taldea izatea eta udaletik jasotzen dituzten oinarriak betetzea dira baldintzak txosna ipini ahal izateko.



Saray De Dios eta Idoia Solana.

“Pediatriako arazoa pandemiatik dator; zerbitzua ona zen, baina harrezkero, akabo”

Urriaren 21ean elkarretaratzea egingo dute Elorrión, 18:00etan, pediatria eta osasun sistema duin baten alde

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Elorrión sinadurak batzen hasi dira pediatria zerbitzu duin bat eskatzeko. Dagoeneko 500 bat sinadura batu dituzte, eta elkarretaratzera deitu dute urriaren 21erako.

Elorrión pediatria zerbitzuagaz arazo bat duzuela diozue.

Saray De Dios: Elorriori pediatria bat eta erdi izatea egokitzen zaio eta momentu honetan pediatria bakarra dugu, eta bera murriztuta. Beraz, pediatria baten lanaldi oso bat ere ez da betetzen. Gainera, honen oporrak eta bajak ez dituzte betetzen, ez dute ordezkorik bidaltzen. Orduan, inguru-

ko herrietako pediatregana edo Arrasatera edo Gurutzetara joan behar izaten dugu.

Idoia Solana: Nik, esaterako, emaginarengana Berrizera joan behar nuen erditu nintzenean, eta hortik korrika Zelaietako pediatrarengana. Hurrengo egunean, beste herri bateko beste pediatria batengana. Eskualdeko pediatria zerbitzurik gehienetatik pasatu gara eta hori onartezina da. Argi geratu dadila hau ez dela Elorrioko pediatraren aurkako zerbait, beragaz oso gustura gaude eta. Hau gure herriari dagokion zerbitzua bete dadila eskatzeko da.

Noiztik dator arazoa?

S.D.: Pediatria zerbitzuaren arazoa pandemiatik dator; ordura arte zerbitzu ona genuen, baina hortik aurrera, akabo.

Urriaren 21ean elkarretaratzea egingo duzue.

I. S.: Elkarretaratzea egingo dugu, pediatria zerbitzu duin bat eskatzeko. Baita orokorrean osasun zerbitzu hobe bat eskatzeko ere. Argi Gorriak taldekoen babesa dugu, izugarri lagundu digute eta eurek ere bat egin dute deialdiagaz. Horrez gainera, udalaren babesa ere badugu. Bertaratze deia egiten diegu herritarrei, azken batean hau denon arazoa da eta. Beharbada orain ez dizu eragingo, baina hemendik denboratxo batera bai.

"Kalitatezko osasun publikoa defendatu behar dugu"

2020ko urtarril bueltan Argi Gorriak elkarte sortu zuten Elorrión, sentsibiltate desberdinetako jendea elkartzeko gune berri bat sortzeko, "sistema honen miseriak" salatzeko eta ekintza berriak sortzeko. Orduz geroztik, Argi Gorriak taldekoek hainbat ekintzatan parte hartu dute herrian.

Oraingoan, Osakidetzaen "egoera lotsagarria" salatzeko, herriko beste lagun batzuekin elkarretaratzea antolatu dute urriaren 21erako. "Gure osasun zentroan pairatzen gabiltzan egoera salatu gura dugu: profesionalak falta dira eta, batzuetan, larrialdiak baino ezin dira artatu. Egoera hau murrizketen eta plangintza faltaren ondorio zuzena da, eta herriaren erantzuna ezin da izan larrialdiak kolapsatzea edo aseguru

mediku bat egitea. Kalitatezko osasun publikoa defendatu behar dugu", azaldu dute Argi Gorriakeko kideek.

Argi Gorriak elkarte kideek urriaren 21eko mobilizazioan parte hartzeko deia egin dute

Hori horrela, datorren urriaren 21erako deitu duten mobilizazioan parte hartzeko deia egin diete elorriarrei Argi Gorriakeko kideek. Gainera, euren taldea herritar guztiei zabaldua dagoela eta argigorriak@gmail.com helbidera idatzita eurekin kontaktuan ipintzeko aukera dagoela azaldu dute.



Herritarrei laguntzeko asmoz, EH Bilduk IBla jaistea eta tasetan deskontuak aplikatzea proposatu du

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko EH Bilduk prentsaurrekoa eman du asteon eta, bertan jakinarazi duenez, udalak inoiz baino diru sarrera handiagoa izango du. "Igoera hori IBla ren eta IEAren igoerarengatik etorriko da. Baita udalkutxatik Abadiñok iaz baino %5 gehiago jasoko duela; hau da, 300.000 euro gehiago", azaldu du Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramaileak. Hori horrela, IBla jaisteko eta tasetan deskontuak aplikatzeko proposamena egin dute talde subiranistakoek. Proposamen honegaz, udaleko diru sarreraren eta familien egoeraren artean oreka bat bilatzea, baliabiderik gutxien duten herritarrei zergen zama arintzea eta zergen diruagaz herriko gai estrategikoei bultzada bat ematea gura dute. "Oso kezagarria da ikustea Aba-

diñoko Udalak errekorrak dituela diru sarreretan, eta, aldi berean, herriko familia askoren egoera ekonomikoa geroago eta larriagoa dela", esan du Urrutia. Beraz, etxebizitzetako IBla %0,20 jaistea proposatu dute, eta komertzio txikien IBla %0,30. IBI industriala, ostera, enpresa txiki eta ertainei ipinitako zerga %1etik %0,80ra jaistea, eta enpresa handiena %1,3tik %1,5era igotzea.

Bestalde, udal tasa eta zerbitzuen prezioak herritarren egoera ekonomikoari egokitzea eta herriko gai estrategikoei bultzada bat emateko hobariak ezartzea proposatu du EH Bilduk. "Esaterako, etxe batean jubilatuta bizi badira eta pentsio bi kobratuta guztira 20.000 euro jasotzen badituzte, udal tasa eta tarifetan %75eko deskontua aplikatzea proposatzen dugu".



Mikel Urrutia eta Naiara Bildosola.

Atxondoko Udalak datorren urteko zergak eta tasak izoztuko ditu

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Laugarren urtez jarraian ordonantza fiskalak aldatu barik jarraituko duela jakinarazi du Atxondoko Udalak. Hau da, 2023ko zergak eta tasak izoztuko dituela. "Krisi garai gatz hauetan udal zergak izozteak familien karga ekonomikoa arintzen lagunduko du", azaldu dute udal arduradunek.

Hala ere, Atxondoko Udalako kideek azpimarratu dute zenbait tasatan defizit handia dagoela eta noizbait doitu egin beharko dela, "baina gaur egun, energia krisiaren eta gerraren aurrean, ahalegina egingo dugu bizilagun guztiei laguntzeko, gure udaleko tasen eta zergen igoerari aurre egin behar izan ez diezaioten".

San Joseko skate parkea lekuz aldatuko dute, lurzoru kutsatuak agertu direlako

Alkateak jakinarazi duenez, "skate parkea metro batzuk beherago" egingo dute



San Jose ingurua.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak jakinarazi duenez, San Joseko skate parkea eraikitzen ibili diren eremuan lurzoru kutsatua dago, eta, ondorioz, obrak gelditu egin behar izan dituzte. "Espero ez genuen eragozpena da, baina dagoeneko bideratu dugu. Orain, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideen zain gauden bitartean, ikertuko dugu nork, noiz eta noren baimenagaz egin zuen betelana galdaketako hondakinekin udal lurzoruan", adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Lurzoru kutsatua aurkitu dute-nean, obrak gelditu egin dituzte eta proiektua berriro planteatu, skate parkea inguruko lekuren batean eraiki ahal izateko. "Skate parkea metro batzuk beherago egingo dugu", argitu du alkateak.

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ



Gora San Fausto jaiak!

Durangon San Fausto jaiak ospatzen ari gara dagoeneko. Pandemiaren bi urteren ostean jaiak berreskuratu ditugu eta denok ilusioz eta pozez gaude.

Aurten Marisa Barrenaren eta Amparo Ereñagaren txupinazoaz eta Landako Eskolako ikasleen txupinazo txikiak gozatzeko aukera izango dugu. Patxikotxu eta Pantxike ere ez dira faltako.

Gure tradizioez ere gozatuko dugu berriro. Horrela, gure artopilak dastatuko ditugu, eta egingo diren lehiaketa gastronomikoekin gozatzeko aukera izango dugu. Zezenak Dira bezalako tradizioak errotuta daude Durangon, eta durangar askok jarduera honetaz gozatuko dute, nahiz eta aurten zezenzaleek ezin izango duten zezen-plaza tradizionalaz gozatu, gobernu taldeak jarritako oztopoen ondorioz.

Edozelan ere, aurten ere ekin-tza ugari izango ditugu Durango-jaietan, pertsona eta elkarte askoren lanari esker. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu jai batzordeko kide guztiei eta Durangori bizia ematen diozuen eragile guztiei. Penaz ikusi dugu aurtengo Jai Egitarau ofizialean kirol-klubek eta beste erakunde batzuek historikoki antolatzen dituzuen jarduerak desagertu direla, antza gobernu taldeak horrela eskatuta, jai batzordetik pasatu ez direlako. Guretzat, San Fausto Jaiak denok osatzen dugu eta horregatik, jarduera guztiak ongi etorriak eta aberasgarriak direla uste dugu.

Bukatzeko, durangar guztiei opa dizuegu Sanfaustoak bakean ospatzea eta gozatzea, erasorik gabe, emakumeek, batez ere, askatasunez eta lasaitasunez goza dezaten. Azken batean, erantzukizuna, errespetua, tolerantzia eta berdintasuna nagusi diren jaiak izatea espero dugu.

Gora San Fausto jaiak!

Durungaldea asteen

Elorrioko Udalak irrintziak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du urriaren 27rako

ELORRIO | Elorrioko Udalak ikastaro bat antolatu du irrintziak egiteko teknika ikasteko eta praktikan ipintzeko. 16 urtetik gorako elorriarrei zuzenduta dago eta urriaren 27an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, Arriola Antzokian. Ikastaroa Amaia García Uriondok emango du eta izena eman beharko da parte hartzeko, urriaren 24a baino lehenago.

JAED elkarteak 6.000 zapi solidario kaleratu ditu Durangoko San Fausto jaietarako

DURANGO | JAED elkarteak Durangoko jaietan erabiltzeko zapiak kaleratu ditu. 6.000 zapi ipiniko dituzte salgai, 2019ko jaietan kaleraturiko kopuru bera. Aurtengo urteari dagokion inskripzioetik aparte, 2020koa eta 2021ekoa ere ipini dituzte zapiaren diseinuan, ospatu ezin izan diren jaien omenez.

Sexualitateari eta generoari buruzko aholkularitza zerbitzua martxan, Abadiñon

ABADIÑO | Abadiñoko Udalak AbadiñoSex zerbitzuari berrekin dio. Orain arte lez, Lahia 3.0 taldeko kideek generoari eta sexualitateari buruzko zalantza guztiak argituko dizkiete bertara doazen herritarrei. Zerbitzua astelehenetan emango dute, 17:00etatik 19:00etara, Traña-Matienako udal lokaletan.



Bien arteko antzekotasunak berriro batu ditu David Broncano eta Iker Unzueta

ZORNOTZA | David Broncano telebista aurkezleak eta Iker Unzueta futbol jokalaria abadiñarrak fisikoki antza dutela esan dute askok. Iaz, Unzueta Amorebietan jokatzen zebilela, kublak Unzueta kamiseta helarazi zion Broncanori, eta honek umorezko bideo bat gaz erantzun zien. Aurten SD Logroñes taldean dabil abadiñarra eta, kuriositate beraren harira, La Resistencia programara gonbidatu dituzte Unzueta eta klubeko hainbat jokalaria. Logroñesek klubeko kamiseta bat oparitu zion Broncanori, bere izenagaz. Zenbakia bedertzia, Unzuetak erabiltzen duena.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER

DESINFEKZIOAK


Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ




TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu beheko animalia hauek txikitik handira.



1
2
3
4
5



Durangok jaiak 2022

Urriak 14, barikua
10:00 Haurrentzako arrantza txapelketa, Pinondon eta San Agustinen. Antolatzailea: Sociedad de caza y pesca
11:00 - 14:00 Haur parkea, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)
11:00 - 14:00 Zirku tailerrak, Andra Mariko elizpean
11:00 - 14:00 Mugikortasun jolasak, Intxaurrendoko Kultur eta Gazteentzako gunean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
16:00 Haurrentzako Herri Kirolak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio Ikastetxean)
17:00 'Hemendikara' zirku eta antzerki ikuskizuna Zirika Zirkus konpainiagaz, Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)
18:30 Elektrotxaranga Motxaila Band kalerik kale
19:00 DJ musika animazioa guztientzat, San Fausto auzoan
20:00 'eRRe. Aldarri bat bertsoz!' ikuskizuna, txosnagunean
20:00 'Dendu' dantza eta musika ikuskizuna Harrobi dantza bertikala eta Oreka TX-gaz, Santa Anan
21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan
21:00 Herriko musika taldeen kontzertuak: Ainke eta Alerta Andra Mariko elizpean
22:00 Kontzertuak, txosnagunean: Añube, Vulk eta Los Zopilotes Txirriaos
22:30 Bertsolariak, San Agustin Kultur Gunean: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Saioa Alkaiza, Aitor Bizkarra, Miren Amuriza eta Aitor Mendiluze. Gai jartzailea: Unai Iturriaga. Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoko leihatilan, urriaren 4tik aurrera eta leku guztiak bete arte.
22:30 Kontzertua: Guns&Roses-i tributoa (Gansos Rosas) Ezkurdin
Irailak 15, zapatua
07:00 Diana txistulariekin
07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin
08:30 Sukalki txapelketa, Landako Gunean. Izen-ematea eta informazioa Intxaurrendon irailaren 21etik aurrera, plazak bete arte. Laguntzaileak: Hiper Eroski Abadiño eta Cafés Baqué.
11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)
11:00 Umeentzako Goitibeheren Jaitsiera probak, Tabira auzoan
11:00 Umeentzako zeramika tailerra, Intxaurrendon. Antolatzailea: Dukerami Zeramika elkarte

11:30 Begi Argiak abesbatzak emanaldia egingo du, J.M. Barandiaran egoitzan
11:30-12:30 Kamiseta banaketa, hainbat gunetan. Antolatzailea: Txosna Batzordea
12:00 Trikipoteoa Santa Anatik txosnagunera eta pintza jolas herrikoia
12:00 Kalejira txistulariekin
12:00 Kalejira, Bergarako erraldoiak Alde Zaharretik
12:00 Patxikotxuren kalejira Landako Eskolagaz Ezkurditik udaletxeraino, eta ohorezko aureskua
12:30 Txupinazo txikia Landako Eskolaren eskutik, udaletxe plazan
13:30 Begi Argiak abesbatzagaz kalejira Alde Zaharretik
14:00 Herri bazkaria San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto
14:30 Gazte bazkaria, txosnagunean
16:00-19:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)
16:00 I. Goitibeheren Jaitsiera, Tabira auzoan
16:30 Bingo musikatua, txosnagunean
16:30 Musika animazioa Stragos DJagaz, Landako Gunean
17:00 Jolas eguna: haurrentzako bits jaia, Murueta Torre auzoan. Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkarte
18:00 ‘Zoro gaitezen’ ikuskizuna Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoekin, Santa Ana plazan (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)
18:00 Kantu jira Alde Zaharretik: Bentazarreko mutiko alaiak
18:00 Karropoteo transmaribibolloa Pinondotik. Ondoren, 19:30ean, Gazte karropoteoa txosnagunetik. Antolatzailea: Txosna Batzordea
19:30 ‘Kimera’ zirku ikuskizuna La Banda Zirko taldeagaz, Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
20:00 Música a capella: Golden Apple Quartet taldea ‘Gran selección’ ikuskizunagaz, Andra Marian
21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan
21:30 Animazioa Alde Zaharretik Ghanako Txarangagaz
22:00 Dantzaldia, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto
22:00 Orkestra Azabache, Madalena auzoan
22:00 DJak txosnagunean: DJ Hija Del Nopal eta DJ Txillardegí

23:00 Kontzertua Zea Mays taldeagaz, Ezkurdin
00:00 Argazki erraldoia, txosnagunean
00:00-03:00 Stand informatiboa programa testing Ai laket!, txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Droga-menpekotasunen Prebentziorako arloa
Urriak 16, domeka
07:00 Diana txistulariekin
07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin
10:00-13:00 San Fausto haur marrazki lehiaketa, San Fausto auzoan. Izen-ematea: 10:00-12:00. Adina: 6 urtetik 17ra. Antolatzailea: Centro Social San Fausto.
11:00 Xake txapelketa umeentzat, Andra Marian. Aldibereko partidak. Antolatzailea: Larrasoloetako Xake Taldea.
11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
11:00-13:00 Haurrentzako tailerrak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean) Antolatzailea: Iñurri Euskat Taldea
11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)
12:00 Jolas eguna, ping-pong txapelketa eta 3x3 saskibaloï txapelketa, San Inazio parkean. Antolatzailea: Auzo Alai elkarte (Madalena)
12:00 Poneyak eta zaldiak, Landako Guneko parkean. (Euria bada, ez da egingo)
12:00 Kalejira txistulariekin
12:00 Arte martzialen kalejira Ezkurditik hasita, Alde Zaharretik eta erakustaldia, Aurora Abasolo parkean. Antolatzailea: Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu.
12:30 Erromeria Luhartz taldeagaz, Ezkurdin
13:00 ‘Durango Uria’ XXII. margo lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte
13:15 Los 5 Bilbaínos taldea, Andra Mariko elizpean
14:00 Nagusientzako bazkaria, Landako Gunean, orkestrak girotuta
16:00 Tortilla txapelketa, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto
16:00 Dirtjump, trialsin, roller eta scooter erakustaldia Intxaurrendon.(Euria bada, Landako Gunean)
16:30 Umeentzako atletismoa Ibaizabal parkean: jolas dibertigarriak (hesiak, erreleboak, ginkana). Izen-ematea: durangokiroltaldea@gmail.com Antolatzailea: Durango Kirol Taldea. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

Durangok jaiak 2022

17:00 Jolas eguna: talo tailerra eta txitxiburduntzia, Otamotzena parkean. (Eguraldi txarragaz, Kurutziaga ikastolan)
17:30 Senegaleko erritmoak M´Lomp elkartegaz, Ezkurditik hasita
18:00 Zirkinik Bez musika taldea, Otamotzena parkean. (Eguraldi txarragaz, Kurutziaga ikastolan)
18:00 Haurrentzako ikuskizuna Iratxoen Kantu Sekretua, Andra Mariko elizpean
19:00 Kontzertua Musika eskolan: 'Inéditas: emakume konpositoreen ahots ikustezina'
19:30 Erromeria Luhartz taldeagaz, Ezkurdin
20:00 Monologoak Gurutze Beitia eta Gorka Aginagaldegaz, Andra Mariko elizpean
22:00 Dantzaldia, San Fausto auzoan
Urriak 20, eguena
19:00 San Agustin Kultur gunean break dance eta ikus-entzunezko ikuskizuna ‘Su(i)rrealismo’ Circle Of Trust eta Logela Multimediaren eskutik. Sarrerak: 8€ (Gazte-txartelagaz: 6€)
Urriak 21, barikua
17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak, Ibaizabal parkean. Simulazioa: 19:00etan (Euria bada, San Antonio Ikastetxean)
17:00 Jolas eguna, San Fausto auzoan
18:30 ‘White Botton’ ohe elastikoen ikuskizuna Ramiro Vergasegaz, Aurora Abasolo parkean. (Eguraldi txarragaz, Nevers ikastetxean)
19:00 Tortilla txapelketa, txosnagunean (20:30ean sari banaketa)
20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua, Santa Ana elizan: Durangoko Orfeoia, Bogoroditsie, Izar Gaztea eta Begi Argiak
21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan
21:00 Kontzertua Bart Sax taldeagaz, Andra Mariko elizpean
22:00 Kontzertua txosnetan: Peio eta Itsua, J Martina eta Merina Gris
23:00 Kontzertua La Casa Azul taldeagaz, Ezkurdin
Urriak 22, zapatua
Txosnaguneko mozorro eguna: 'Denboraren makina'
07:00 Diana txistulariekin
07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu bakoentzat, Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.
11:00-14:00 Umeentzako tailerrak Panpotx taldeagaz, Andra Mariko elizpean
11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
11:00-14:00 Haur tailerrak Asebier elkartaren eskutik, Barandiaran kalean
11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)
12:00 Kalejira txistulariekin
12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri Txiri taldearen eskutik
12:00 Patata tortillaren XIII. txapelketa, Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak/ 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa: Intxaurren don urriaren 3tik aurrera, plazak bete arte
12:30 Xaibor disko-festa haurrentzako berbena, Ezkurdin
14:30 Elkartasun bazkaria, txosnagunean. Txartelak Mesoi Barrian eta Intxaurren. Ostean, elkartasun argazkia
16:00-19:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
16:00 XXVI. Larrasoloetako lagunarteko xake txapelketa federatuentzat, Ezkurdin. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea
17:00 Animazioa trikitixarekin pertsona nagusien egoitzetatik
17:30-19:00 Astronomia eskulan tailerrak eta ur suzirien jaurtiketa, Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo) Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkar tea
18:00 Dantza ikuskizuna 'Gazte' Oinkari Dantza taldea & Hika Teatroren eskutik, Aurora Abasolo Parkean. (Eguraldi txarragaz, Kurutziaga ikastolan)
18:30 Kalejira DJ Reimygaz, txosnagunean hasita
18:30 Taldekako mozorro desfilea Madalenatik Andra Mariraino. Amaieran, sari zozketa. Izen-ematea: urriaren 1etik 19ra Intxaurren don. (Euria bada, Andra Marian)
18:30 Kalejira Sugarri fanfarreagaz, Madalenatik
20:00-22:00 AICE DJa, Andra Marian
21:00 Behaketa astronomikoa, Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo). Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkar tea
21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan
22:00 Orkestra Diamante, Ezkurdin

22:00 DJak txosnagunean: DJ Reimy, Beñat eta Maixa
23:00 AICE DJa, Andra Marikko elizpean
00:00-03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Mernialdearen Amankomunazgoko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Arloa
Urriak 23, domeka
07:00 Diana txistulariekin
07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin
11:00 Mañaria errekaren garbiketa
11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Euria bada, Landako Gunean)
11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean (Euria bada, Landako Gunean)
11:45 Tabira Musika Bandak emanaldia egingo du, J.M. Barandiaran egoitzan
12:00 Jolas eguna, Tabira parkean
12:00 Kalejira txistulariekin
12:00 Haur marrazki lehiaketaren sari banaketa, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto
12:00 Poneyak eta zaldiak, Ibaizabal parkean (Euria bada, ez da egingo)
12:00-14:00 Arku tirorako gunea, Ibaizabal parkean (Euria bada, Landako gunean)
12:30 Herri kirolak, Ezkurdin
13:15 Kontzertua Tabira Musika Bandagaz, Andra Mariko elizpean
17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L' Atelier Dantza Eskolaren eskutik, Ezkurdin
18:00 Mariatxi Internacional De Mexiko, Andra Mariko elizpean
18:30 Kalejira Irulitza fanfarreagaz Alde Zaharretik
19:30 Patxikotxuri eta jaiei agur esateko Gigantes De Luz ikuskizuna udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretan
Urriak 29, zapatua
20:00 Durango Txistu Kontzertua 2022 Landako Gunean. Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkar tea
Urriak 30, domeka
54. Umeen euskal jaia. Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea
12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute, eta, ondoren, alardea Ezkurdi plazan (Euria bada, Landako Gunean)



'Su(i)rrealismo'

ANTZERKIA **Durango :: Urriak 20**

Arte bisualak eta breakdance-a uztartuz sorturiko ikuskizuna

Elorrioko Logela multimediararen arte bisualak batetik, eta Circle of Trust zaragozarren breakdance sinestezinak bestetik. Biek bat egingo dute Durangoko San Agustin kulturguneko oholtza gainean. Elkarri eskua emanda sorturiko 'Su(i)rrealismo' ikuskizuna, irudimenak eztanda egingo duen sorkuntza lan garaikide eta gaztea, aurkeztuko dute datorren urriaren 20an, 19:00etan hasita.

1940ko hamarkadan, Bigarren Mundu Gerra hasita zegoela, Parisko kafetegiak hainbat diziplinako artisten topaleku bihurtu ziren. Han korronte artistiko berria sortu zen: surrealismoa. Horixe du ardatz Logela multimediak eta Circle of Trustek landuriko ikuskizunak. Eurek nabarmendu duten moduan, "artista surrealisten ezaugarrietako bat inkontzientea irudimenaren iturria dela erakustea da".

Urriaren 14an

ZORNOTZA antzerkia
'Fake' (Trampantojo),
20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 15ean

BERRIZ sanfaustoak
Donien Atxa altxatzea,
18:00etan, Eitua auzoan.
Broken Brothers Brass Band.

OTXANDIO berbardia
'Euskal Herriko sendabelarrak' (Hizlaria: Mentxu Amunategi),
11:30ean. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

OTXANDIO dantzariak
Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna, Urduri dantza taldeak antolatuta.
Dantzarien biltzea, 17:30ean, Andikona plazan.
Dantza taldeen argazkiak, 17:45ean.
Kalejira, 18:00etan, Plaza Nagusiraino.
Dantzari Dantza eta Erregelak.

ZALDIBAR musika
Pulso + Kolpeka, 18:00etan, Sorgin tabernan.

Urriaren 16an

DURANGO sariketa
'Durango Uria' XXII. Margo Lehiaketako sari banaketa, 13:00etan, Ezkurdi

erakustaretoan. Durangaldeko Artista Elkartek antolatuta.

GARAI berbardia
'Gaurko artzaintzaren eta artzain txakurren lana'
berbardia eta erakustaldia Aitor Urien, Angel Azkorbebeitia eta Jose Ramon Garciaren eskutik, 11:30ean. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

Urriaren 16an

BERRIZ sanfaustoak
Meza, 12:00etan. Ondoren, **Iremiñe dantza taldearen saioa.** Urtero lege, odolostea emango dute.

Urriaren 16a bitartean

DURANGO erakusketa
'Durango Uria' XXII. Margo Lehiaketan aurkezturiko lanen erakusketa, Ezkurdi erakustaretoan.

Urriaren 19an

DURANGO mahai-ingurua
'Latsarrietako emakumeen memoria historikoa berreskuratuz', 17:30ean, Arte eta Historia Museoa. Nerea Gastonek, "Durango sor(tzaileen)leku 2021" bekaren irabazleak, Durangoko Arte eta Historia Museoagaz elkarlanean antolaturiko mahai-ingurua. Izena

ematea 94 603 00 20 telefono zenbakira deituta. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

Urriaren 20an

ZALDIBAR irakurzaletasuna
Irakur eta jolas txokoa, 17:00etan, liburutegian. Hirutik bost urtera arteko umeei eta haien gurasoei zuzenduriko saioak.

Urriaren 21ean

BERRIZ dantza
'La psicología del color' (David Segura konpainia), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO dantza
'El Lago' (De Danza Lamov konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

MAÑARIA musika
Puro Relajo, 18:00etan, plazan.

Urriaren 22an

BERRIZ bisita gidatua
'Zuhaitzen doinutan' udaletxeko aurreko lorategian zehar bisita gidatua, musikaz eta bertsoz jantzita, 12:00etan, Umerri eskola

aktiboaren eskutik. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

ZORNOTZA antzerkia
'Pintto Pintto' (Anita Maravillas konpainia), 12:30ean, Zornotza Aretoan. Bigarren emanaldi bat egingo dute, 17:30ean.

Urriaren 22an

ABADIÑO bisita gidatua
Gerediaga Batzarlekura bisita gidatua, 11:00etan eta 12:15ean. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

Elorrio dantza
'La psicología del color' (David Segura konpainia), 17:00etan, Arriola Antzokian.

Urriaren 23ra bitartean

DURANGO erakusketa
'E x 3', Jone Ertzilla artista durangarraren lehenengo erakusketa ikusgai, Arte eta Historia Museoa. Durango Sor(tzaileen) leku bekaren laguntzagaz.

Zinema

:: Abadiño
ERROTA KULTUR ETXEA
• **Cinco Lobitos**
zapatua 15: 19:00

• Las aventuras de Gulliver
domeka 16: 17:00

:: Berriz
KULTUR ETXEA
• **DC Liga de supermascotas**
barikua 14: 17:00
domeka 16: 17:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA
• **Halloween: El final**
barikua 14: 18:30/21:00
zapatua 15: 18:30 /21:00
domeka 16: 17:00 / 19:30
astelehena 17: 18:00 /20:15
martitzena 18: 18:00 /20:15
eguztzena 19: 19:00

• **Cerdita**
barikua 14: 18:30 /21:00
zapatua 15: 18:30/21:00
domeka 16: 17:00/19:30
astelehena 17: 18:00 /20:15
martitzena 18: 18:00 /20:15
eguztzena 19: 19:00

• **Fall**
barikua 14: 18:30 / 21:00
zapatua 15: 18:30 / 21:00
domeka 16: 19:30
astelehena 17: 18:00 / 20:15
martitzena 18: 18:00 / 20:15

• **Operación Bebe Oso**
zapatua 15: 16:30
domeka 16: 17:00

• **Turandot (opera)**
eguztzena 19: 19:00

::Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA
• **Mali Twist**
zapatua 15: 20:00
domeka 16: 20:00
astelehena 17: 20:00

• **DC Supermaskoten Liga**
domeka 16: 17:00

::Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Cuerdas + Nación**
martitzena 18: 20:15



Kinka

KLIMA ETA NATURA KRISIAN

Podcasta eta buletina, **hamabostero**.



**Harpidetu zaitez
buletinera**
Berria.eus/kinka

berria

zuk badakizulako

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Durangoko latsarriei buruzko ikerketak oinarri hartuta, Nerea Gastón arte historialariak erakusketa prestatu du Arte eta Historia museoan. Durango Sor(tzaileen)leku beka jaso du erakusketa egin ahal izateko. Urriaren 30era arte egongo da ikusgai erakusketa.

**'Latsarriak: emakumeen ahotsa' era-
kusketa inauguratu zenuen joan zen
barikuan. Zelan joan zen ate irekiera
ekitaldia?**

Emozionantea izan zela esango nuke. Jende nahikotxo etorri zen erakusketara. Proiektuaren abiapuntuari eta garapenari buruz berba egin nuen, izan ere, hasieratik hona aldatu egin dela esango nuke. Gero, Karrika antzerki taldekoek performance bat egin zuten latsarrietan.

Aitortzen da latsarriek izandako garrantzia?

Udalaren beka jaso aurretik hasi nuen ikerketa, master amaierako lana gai honi buruz egin nuen eta. Lan horretan, Barrenkaleko latsarrien garrantzia azpimarratzea proposatzen nuen, funtzionalak izateaz gainera genero espazioak zirelako eta emakumeen sozializazioan garrantzitsuak zirelako. Alde batetik, historia materiala ikertu gura nuen, ez zegoelako informaziorik, baina emakumeek espazio hauetan izandako rola ere ikertu gura nuen. Beka eman zidatenean, forma eman nion proiektuari. Eta konturatu nintzen Barrenkalekoetz gainera badaudela beste latsarri batzuk Durangon, eta horietaz berba egitera ausartu naiz. Proiektu honen ardatza erakusketa bat da; bertan, zortzi emakumeren lekukotza dago, besteak beste. Durangoko artxiboko planoak ere egongo dira ikusgai (aurretik inoiz erakutsi ez direnak), latsarriak agertzen direnak. Horrez gainera, bideo performance bat ere egongo da ikusgai; Bilboko Conciencia y Arte elkarteko artista batek egin du. Elkarrekin Bilboko Udalaren beka bat jaso du, hango latsarriei buruzko dokumental bat egiteko. Niri beka eman zidatenean, eurekin gogoratu nintzen eta irudit

“Jasotako lekukotzei eskerrak, San Faustoko eta Madalenako latsarriei forma eman ahal izan diet”

Nerea Gastón arte historialari durangarrak 'Latsarriak: emakumeen ahotsa' erakusketa prestatu du Durangoko Arte eta Historia museorako; hilaren 30era bitartean ikusi daiteke



Nerea Gastón Tabera

Arte historialaria

DURANGO | 1995

zitzaidan, keinu bat egiteaz gainera, gaiari ikusgarritasuna emango ziola.

Uste duzu kasualitatea dela antzeko proiektu biri beka ematea?

Beti diot latsarriak ahazturiko ondarearen parte direla. Ez dira garrantzitsutzat jo, eta horregatik daude gehienak abandonatuta. Horren ondorioz, hondatu egiten dira. Bere sasoian elementu funtzionalak ziren, eta ez bakarrik emakumeek euren lana egiten zutelako bertan. Han beste emakume batzuekin berbetako aukera zutelako ere bai. Garai hartan, emakumeek hiru aukera zituzten

Berbaldiak emakume latsarien lana aitortzeko

Ikerketagaz aurrera egin ahala, Gastonek kide, datu eta gai interesgarriak ezagutu ditu. Gai horietan sakontzeko eta hausnartzeko, berbaldi sorta bat antolatu dute Arte eta Historia museoan. Urriaren 17an hasita, lau hitzaldi egingo dituzte. Lehenengoan, Sopuer-tako Gaurko Emakumeak elkarteko Mariefi Perezek berba

egingo du; emakumeen ezku-
tuko lanari buruz arituko da.
Hilaren 18an, Isabel Mellen
ikerlariak latsarrien garapenari
buruz berba egingo du. 19an,
mahai-ingurua egingo dute
latsarriak ezagutu dituzten
emakueekin. Amaidzeko, Es-
tibaliz Gutierrezek emakume
latsarien garrantziari buruz
emango du hitzaldia.

publikoan elkartzeko: mezan, merkatuan eta latsarrietan. Beraz, ondare kulturala izateaz gainera, gune hauek bazuten funtzio kulturala ere, eta istorio asko geratu da hor atzean. Lana egiten hasi nintzenean, asko harritu ninduen jendeak latsarriak ez ezagutzeak. Baina ez nire adin ingurukoek bakarrik; jende nagusiagoak ere ez zituen ezagutzen. Axolagabe jokutzen da latsarriekin, jada ez dutelako funtziorik. Barrenkalekoak etxeetako aterpeetan daudenez, etxe horietako jabeenak dira, eta horiek nahiko ondo eutsi diote denboraren joanari, baina beste batzuk okerrago daude.

Zelan konpondu zara elkarrizketatuekin?

Oso ondo. Beharbada, hasieran, deitzeroakoan, ni ezezaguna izatera, apur bat abordatuta sentitzen ziren. Baina nik galderak egin ahala, lasaitu eta gauzak gogortzen hasten ziren. Asko harritu egiten ziren, ez zuten ulertzen-eta zelan egon daitekeen nire adinako pertsona bat kontu hauei buruz galdezka. "Zer interes izan dezakezu latsarrietan, jada ezertarako balio ez badute?" Erantzutten nien eurek uste zuten baino interesgarriagoa eta baliagarriagoa zela gaia. Lekukotza horiei eskerrak, San Faustoko eta Madalenako latsarriei forma eman ahal izan diet. Euren lekukotzarik barik, ez genuke inoiz jakingo zelakoak ziren.

San Faustokoez eta Madalenakoez gainera, badago besterik Durangon?

Durangoko mapa bat prestatu dut erakusketarako. Hamalau latsarri ageri dira mapa horretan. Honegaz ez dut esan gura horiek bakarrik egon zirenik. Horiek existitu zirela baino. Erakusketaren inaugurazio ekitaldian ere azaldu nuen, beka eman aurretik emakume batzuei elkarrizketa eginda nengoela. Gero, deialdia egin nuen, jende gehiago joateko, sarea handitu ahal izateko, izan ere, banekien emakume gehiagok ere ezagutzen zituztela latsarriak. Gustatuko litzaidake erakusketa-gaz ere berdina gertatzea, jende gehiago animatzea euren lekukotza ematera.

hitz

● **liburudenda**

artekalea 23, durango

946 810 776

info@hitzliburudenda.com

#salduenak

BAR GLORIA
Nerea Ibarzabal
(Sus)

BERRIZ ZENTAURU
Katixa Agirre
(Elbur)

**MUNDUARI BERA
IMAN ZION ONTZIA**
Joseba Sarrionandia / Ares
(Pamiela)

Eskuratzeko WhatsApp-eraz esatatu: 686 214 964

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak



Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Zirklo Kros
saki negura

UMRANJE
Sistemom

Sponzor:

- Master
- Kapela
- Employment space
- Geripac
- Avast
- Poljoprivredni
- Multimarket

Sponzor:

- Debit
- System
- Udruga
- Kariboto
- Radio
- Radio
- Radio
- Radio



Nerea Mujika Gerediagako presidentea eta Ruben Ramos kartelaren egilea.

Ruben Ramosen kartelak iragarriko du Durangoko Azokaren 57. edizioa

Gerediaga elkarteak "ohiko" azoka berreskuratzeko asmoa duela azaldu du 57. edizioa izango den honetan. Abenduaren 7tik 11ra egingo dute Durangoko Azoka

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO
Aurtengo Durangoko Azoka ospakizunena izango da. "Iazko ziurgabetasunaren ondoren, aurten mugarik bako azoka izango da, eztanda bat", azaldu zuen Nerea Mujika Gerediaga elkarteak aurkezpenean. Hain zuzen ere, eztanDA! da aurtengo azokaren leloa. Ruben Ramos gipuzkoarra da kartelaren egilea, eta sorkuntzaren eta jaiaren eztanda hori irudikatu gura izan du irudian. "Ilustrazioak uni-bertsoaren eta Bing Bangaren hedapenera garamatza. Inklusitatearen barruan, pertsona ezberdinen ideiak, ez emakume ez gizon, ilusioak eta norberaren imaginazio koloreduna irudikatu ditut. Kulturak berak, bai literaturak bai musikak, beste leku batera eramaten gaituen isla da. Kolore paletak eta ikonografiak sintetizadore retroetatik edaten dute, eskuz landuriko tipografia psikodelikoagaz", adierazi du egileak. Ibilbide luzeko diseinatzaile eta sortzailea da Ramos. Zinemaldiko eta Jazzaldiko kartelak egin ditu, besteak beste. Oraintsu Aise Studioa sortu du.

Ohiko guneak
Azken urteetako guneak zabalik egongo direla iragarri dute prentsaurrekoan, baita Plateruena ere. Horrez gainera, aurrez aurreko "ohiko azoka" berreskuratzeaz gainera, Internet bidezko denda ere martxan egongo da aurten.

Martitzeneko prentsaurrekoan, Nerea Mujikaz eta Ruben Ramosez gainera, Andoni Iturbek (Eusko Jaurlaritzako kultura sailburuordea), Xabier Arauzok (Bizkaiko Foru Aldundiko euskara zuzendari nagusia) eta Ima Garrastatxu Durangoko alkateak berba egin dute.

Megamax youtuberra Mangamoren egongo da

Urriaren 14tik 16ra bitartean egingo dute Zornotzako manga eta anime jaialdia; hamaseigarren edizioa da aurtengoa

MANGA • ARITZ MALDONADO
Andoni Agirrebeitia alkatearen berbetan, Zornotza "Manga munduaren epizentro" izango da asteburuan. Izan ere, Mangamore jaialdi tematikoa egingo dute gaurtik aurrera bertan. Besteak beste, Megamax eta El quinto emperador youtuber ezagunak egongo dira (Megamaxek zazpi milioi jarraitzaile dituela azaldu du Ainhoa Salterain Gizarte ekin-tzako zinegotziak). Mangamoren hamaseigarren edizioa du aur-

tengoa eta "herrian sustraiturik" dagoela azaldu du Salterainek. "Egitarau zabalari eskerrak adinguztietako zornotzarrek gozatzen duten jaialdi tematikoa da hau, mangaren edo animearen ez hain zaleak ere erakartzen dituen". Aurten ere bost gune izango ditu topaketak. Berbaldiez gainera, Cosplay eta Asian Dance lehiaketak ere egongo dira.

Aurtengo edizioko berbaldiatariko bi euskaraz izango direla nabarmendu zuten aurkezpenean.



Andoni Agirrebeitia alkatea eta Ainhoa Salterain zinegotzia.

Gai liblean

Zatoz

Eman dituzu hiru urte herrira etorri barik, eta esango nuke ohikoak baino tximeleta gehiago ditudala sabelean. Biok dakigu gehiegi izan dela elkar ikusi gabeko denbora. Ahizpak idatzi dit Txiletik, eta berak ere zure falta somatu duela diost. Aurten ezingo da zurekin elkartu. "Datorren urtean", erantzun diot nik.

Atzera begiratzen dut lipar batez, eta ikus ditzaket Plateruenako argiak piztuta, orduko urriko goizaldeetako bistak apur bat lainotuta banituen ere. 2019an Antonio's taberna kuttuna rock and rolla oparitzen zebilen oraindik. Aginako ere dakusat; garai hartan, Almusaffesetik Intxaurrera deika, gorputza han, baina bihotza eta burua hemen dituela. Sarrik Ijorretako plaza (berriz) zapaldu barik



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea

Ikusi ditzaket Plateruenako argiak piztuta, orduko urriko goizaldeetako bistak apur bat lainotuta banituen ere

Aspertzeko betarik ez duzu izango, Pantxike. Zatoz gura duzunean, beso-arima-hanka-zabalik gaude zure zain eta

zeukan orduan, eta musukoak zirujauen uniformearen parte besterik ez ziren.

Tira, heldu da 2022ko udazkena ordea, eta bazatoz berriro ere gugana. Urteetako eskarmentua daukagu Durangon, ondo dakizu hori. Ez egin zalantzarik beraz, ondo baino hobeto prestatu baitugu dena: jantzi dugu munduko plazarik ederrena, epeldu dugu sukaldea datorren orori jaten emateko, eta antolatu ditugu askotariko ekimenak; izan, badiarelako elikatzeko modu diferenteak.

800 gazte elkartuko dira Gazte Egu-nean, herriko ia preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan daude eta Kuir Eztanda antolatu dute karropoteo transmaribibollo eta guzti. Hitza ematen dizut beraz, indarberrituta gatzozela aurten.

Aspertzeko betarik ez duzu izango, Pantxike. Zatoz gura duzunean, beso-arima-hanka-zabalik gaude zure zain eta.

Mauri Imazek korrika lotuko ditu Urkiola eta Santiago de Compostela, Durangon ospitale berria eskatzeko

Eguazten gauean hasi zuen "misio" berria; 661 kilometro dituen ibilbidea astebetean egitea da helburua



Iaz Urkiola mendatea urtebetean egunero igo zuelako egin zen ezagun Mauri Imaz. Irudian, Urkiola azkenengoz igo zuen eguna.

KORRIKA • J.D.

Mauri Imaz durangarra ezagun egin zen 2021ean, urtebetez Urkiola mendatea egunero igo zuenean bizikletan. Hezur-muinaren donazioaren garrantzia lau haizetara zabaltzea zen orduko erronkaren

helburua. Erronka hark oihartzun handia izan zuen gizartean, eta aste honetan beste bat hasi du: Urkiola mendatea eta Santiago de Compostelako katedrala korrika lotuko ditu. Eguaztenean ekin zion bideari, goizaldeko hiruretan, eta

egunero 100 bat kilometro egitea du helburu, datorren asteko eguaztenean Santiago de Compostelara heldu ahal izateko. Oraingoz, bide onetik doa asmoa; eguazteneko lehenengo etapan, esaterako, 105 kilometro egin zituen korrika eta

oinez. Hamasei orduan gelditu barik aritu zen. Urkiola eta Santo Domingo de la Calzada lotu zituen. 95 kilometro egitea aurreikusita zuen eta hamar gehiago egin zituen. "Ahal dudanetan gehiago egiten ahalegintzen naiz, sekula ere ez

dakizulako hurrengo egunean zer gertatu daitekeen. Euria egin deza-ke edo edozer ustegabeko gertatu daiteke", adierazi du Imazek.

Oraingoan, Durangon ospitale berri bat egiteko beharra da zabaldu gura duen mezua. "Ospitale bat behar da Durangoko osasungintza hobetzeko. Oso beharrezko ikusten dut eta mezu horri bultzada bat eman gura diogu", adierazi du. Erronka bat barik "misio" bat dela dio, eta elkartasun kontua barik "gizatasun" kontua.

"Ospitale bat behar da Durangoko osasungintza hobetzeko. Oso beharrezko dela ikusten dut"

Misioari 'Turkiolo bidea' izena ipini dio. Denbora eman du ibilbidea diseinatzen eta bideak bilatzen. "Urkiola Santiago de Compostelagaz lotzen duen bidea geuk asmatu-rikoa da. Aurrerantzean, gura duenak egin ahal izango du bide hori", adierazi du.

Mauri ez dago bakarrik. Joaquín Areso Durangon bizi den argentinarra beragaz doa eta karabana baten laguntza ere badu. Ondo bidean, urriaren 19an helduko dira helmugara.

Pilota munduak euskal selekzioa aldarrikatu du Durangoko agerraldian

Urriaren 22tik 29ra Biarritzen jokatu den munduko txapelketaren harira, Euskal Pilota Selekzioa kolektiboak agerraldia egin zuen eguaztenean, euskal selekzioa aldarrikatzeko

PILOTA • J.D.

Agerraldian euskal pilotaren Durangoko manifestua irakurri zuten Endika Barrenetxeak (erre-montea), Laura Saezek (gomazko paleta), Ibai Zabalak (esku pilota) eta Iera Agirrek (esku pilota). Euskal kirolariek ezin dutenez parte hartu Nazioarteko Euskal Pilota

Federazioak antolatzen dituen nazioarteko txapelketa ofizialetan, euskal selekzioaren "ofizialtasuna" aldarrikatu zuten. "Euskal pilotariak garenez, Euskal Herriko koloreekin eta gure ereserkiaren doinupean lehiatu gura dugu. Hori lortzeko denok batu behar ditugu indarrak", adierazi dute. Helbu-

rua lortzeko bidean "hartu behar diren erabakiak" hartzeko eskatu zieten Munduko Pilota Batzarrari, Euskal Pilota Federazioei, instituzioei eta politikariei. Agerraldiak pilota munduko hainbat agintari, agintari ohi eta pilotari batu zuen, eta ekitaldiaren amaieran familia argazkia atera zuten.



Azkorbebeitia bere seme biekkin, helmugaratu eta gero.

Azkorbebeitia azpitxapeldun geratu da Munduko Kopan

Skyrunner World Series-eko hiru proba irabazita, korrikalari abadiñarrak goi mailako denboraldia osatu du

KORRIKA • J.D.

Gorbeia Suzien proban erabaki zen txapelduna, joan zen asteburuan. Denboraldian zehar hiru proba irabazita, Oihana Azkorbebeitia abadiñarra lider heldu zen Munduko Kopako azken lasterketara, finalera. Azkenean, Lindsay Webster kanadarra gehiago izan zen eta berak irabazi zuen Kopa.

Abadiñarra azpitxapeldun geratu da. 2017tik hona, Azkorbebeitia lehenengo hamarren artean geratu da Munduko Kopako sailkapen nagusian eta pozarren dago lorturiko emaitzekin. "Munduko Kopa beti izan dut gogoko. Lagun asko egin dut han eta hemen, emaitza onak lortu ditut eta ezin dut gehiagorik eskatu", adierazi du.



Eguaztenean Durangoko Ezkurdin egindako agerraldiko irudia.

Zornotzako Aramotz mendi lasterketan ibilbide luzea berreskuratu eta laburra mantendu egingo dute domekan

Pandemiaren eraginez, azken urte bietan ibilbide laburra baino ez dute antolatu; aurten bueltan da 29 kilometroko ohiko ibilbidea



Ibilbide luzeko parte hartzaileek Leungane eta Artatzagane igoko dituzte, besteak beste.

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Zornotza Mendi Taldeak Aramotz mendi lasterketa antolatu du domekarako. Ibilbide luzea bueltan dela da aurtengo nobedade nagusia. Pandemiaren eraginez, azken aldi bietan ibilbide laburra baino ez dute egin, errazagoa zelako kontrolatzeko eta pilaketak saihesteko.

Aurten, 28 kilometrokoa berriro antolatu eta 17koa mantendu egingo dute.

Biak Jauregibarria ondotik irten-go dira: luzea 08:30ean, eta laburra 09:00etan. Ibilbidean moldaketa txiki bat dago. Orain edizio batzuk Mugarrikolandatik 'kantera' lez ezagutzen den tokira jaistea eraba-

ki zuten, eta gero beste aldats bat igotzea, baina horren beharrik ez dagoela konturatu dira eta kendu egin dute. "Desnibel gehitxoago ipintzea zen helburua, 200 bat metro gehiago, baina ikusi dugu 1.800 metroko desnibela nahikoa dela korrikalarientzat, eta antolaketa- ren ikuspuntutik ere errazagoa

dela tarte hori barik", adierazi du Zornotza Mendi Taldeko Kemen Iturraranek.

Aurten 180 korrikalarik parte hartuko dute eta hurrengo aldieta- ra begira 200era heltzea dute hel- buru. "Baina heltzen ez bagara ere pozik egongo gara. Lasterketa he- rrikoia da, zaletasuna dutenentzat

antolatzen dugu eta jendeak gure inguruko mendiekin gozatzea da helburu nagusia", dio Iturraranek. Lasterketa irabazteko faboritoen artean Maria Zorroza aipatu daite- ke lasterketa laburrean, eta Erlantz Zaldunbide luzean.

Lantaldeak

Aurtengo beste berrikuntza bat barrura begirakoa da, egiturari da- gokiona. Zornotza Mendi Taldeko lagunek laguntza eskatu dute an- tolaketa lanetarako, eta jendearen partetik erantzun "ona" jaso dute. Beraz, lantaldeak antolatuz eta erantzukizuna banatuz jardungo dute: ibilbideak garbitzeko eta mar- katzeko, anoa gunetarako... "Hu- rrengo aldietan lan egiteko modu honi jarraipena eman gura diogu", esan dute.

Mendi bizikleta martxarik ez

Pandemiaren aurretik mendi bizi- kleta martxa antolatu zuten, lehe- nengoz, data honen bueltan, baina ekimen horrek ez du jarraipenik izango. Parte hartzaileak gustura ibili zirela dio Iturraranek. Beraz, bertan behera uzteko arrazoa bes- te bat da: ibilbide bera mantentzeko zailtasuna. "Pinu asko botatzen dute, sarritan bideak itxita daude eta ikusten genuen ezingo genuela ibilbide bera egin", adierazi dute.

Jokaldia

All Blacks-en jatorria

Askotan galdetu didate Zeelanda Berria nola izan daitekeen errugbi arloan hain esanguratsua duen biztanleria kontuan hartuta. Erantzuna ez da batere erraza, hainbat faktore sartzen direlako ekua- zioan.

All Blacks taldearen ospearen jatorria kokatzeko, 1905. urtera itzuli beharko genuke. Urte hartan, abuztuaren 8an, SS Rimutaka itsasontzian igo zen All Blacksen taldea, Ingalaterran bira bat egiteko asmoarekin. Jatorri eta lanbide askotako 29 ausartek osatzen zuten espedizioa: zapatariek, meatzariak, errementariak, nekazariak, arotzek, funtzionarioak... Hilabete eman zuten itsasoan Plymouthen lurra jo arte, eta entrenamenduak itsasontziaren ontzi- gain edo kubiartan burutu behar izan zituzten. Guztira, 32 partida jokatu zi-



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

1905ean SS Rimutaka itsasontzian igo zen All Blacks taldea, Ingalaterran bira bat egiteko asmoarekin

Guztira, 32 partida jokatu zituen hiru hilabete eta erdian. 31 irabazi zituen eta bakarra galdu zuen

tuzten hiru hilabete eta erdian. Hala ere, lehen partidatik argi ikusi zen mao- ri hauek ia beste kirol batera jokatzeko zutela. 31 partida irabazi eta bakarra galdu zuten, Galesen aurka (3-0). Sasoiko kazetariak zioten epaileak zerikusi han- dia izan zuela lehen porrot hartan.

Urteberri egunean Mantxako kana- la zeharkatu eta Parisko Printzipeen

Parkean 12.000 ikusle bildu ziren Fran- tziaren eta Zeelanda Berriaren arteko norgehiagoka ikusteko. 8-38 nagusitu ziren hego hemisferiokoak. Biran beste geldialdi bat geratzen zen: Ameriketako Estatu Batuak, non British Columbiako taldeari birritan irabazi zioten, etxera bueltatu aurretik.

Bira horretan jarri zioten talde honi All Blacks izena, baina dena txarto-uler- tu baten ondorioa izan zen. Itxuraz Londresen argitaratzen zuten egunkari batean jarri nahi izan zuten "all backs", hau da, harrituta zeudela talde horreta- ko jokalariek edozein tokian jokatzeko gaitasuna zutelako, baina akats tipa- grafiko baten ondorioz 'all blacks' jarri zuten eta ekipamendua guztiz beltza ze- nez, Britainia Handiko The Express-ek eta Devoneko Echok berea egin zuten. Geroztik "All Blacks" izena zabaldu eta legenda talde bat sortu zen.

ASTE HONETAN

Ion Celestino
Musikaria

**"Iruñerrian Euskal
Rock Erradikala hil
egin da, behingoz"**

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Botikak

BARIKUA, 14 · 09:00-09:00	GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO	09:00-22:00
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 17 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA	GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 15 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 18 · 09:00-09:00
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
DE DIEGO INTXAURRONGO 22. - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	09:00-22:00
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	EGUAZTENA, 19 09:00-09:00
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO	GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 20 · 09:00-09:00
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SARRIA SASIKOA 17, DURANGO
09:00-22:00	GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 16 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA
MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Auritz!** Oso-oso ondo pasa zure egunean eta topera disfrutatu. Muxu potolo pila bat familia osoaren partez.



Oier eta **Aretx**, 9 urte egin dozuez aste honetan. Ondo zelebrau San Faustuetan eta ama gonbidatu Katatzkan gosaltzen. Maite zaittuet!



Zorionak, **Julen!** Durengoko gaupasak beste era batera biziko dozuz aurtien, baina datorren urtien ez zara txosnetako gaupasez librauko! Zaindu ta mosu handi bat kuadrillako danen partez!

Eguraldia

ZAPATUA	28° / 13°	
ASTELEHENA	26° / 17°	
EGUAZTENA	28° / 18°	
DOMEKA	27° / 14°	
MARTITZENA	28° / 17°	
EGUENA	26° / 17°	

URRIAK 24
18:30etan

LIBURU ERREKETA
JOSEBA SARRI-ORRABIA

Sarrera gonbidapenarekin

📞 946812726

✉ liburiteka@iurreta.org

📞 628 863 736

"Guretzat oso eskertzekoa da jendea kariño honegaz agurtzera etortzea"

Arriaga-Rodríguez familiak Traña-Matienako Atxa burdindegia zarratzea erabaki du, 48 urteren ondoren. Bezeroengandik jasotzen dabiltzan mezuekin hunkituta daude



Julen Arriaga, Espe Rodríguez eta Iker Arriaga.

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Atxa burdindegiak ateak itxiki ditu gaur, 48 urteko ibilbidearen ondoren. Albistea publiko egin zutenetik, bezeroak despedidarako mezu hunkigarriekin doaz dendara. Ia bost hamarkadatan erein duena jasotzen dabil Arriaga-Rodríguez familia. Bezeroen joan-etorri eta besarkada artean erantzun diete ama-semeek kazetariaren galderei.

Zelan sortu zenuten Atxa burdindegia orain 48 urte?

Espe: Soldadutzatik etorri zenean, Martin senarraren gurasoek negozio bat zabaltzeko proposamen bat zuten. Bera hasi zen negozioagaz, eta ezkondu ginean, libre nengonean, dendan

laguntzen hasi nintzen. Martin hil zenean, neuk hartu nuen dendaren ardura. Bide honetan, Monika nire lehengusina oso garrantzitsua izan da, asko lagundu dit eta.

Semeak ere laguntzen ibili dira.

Iker: Hasieran, zeozertxo egiten genuen. Gero, amak dendaren ardura hartu zuenean, gehiago laguntzen hasi ginen. Nik fakturen arloa eraman dut orain arte.

Julen, noiz hartu zenuen dendaren ardura?

Julen: Enpresa batean lan egiten nuen eta ERTera joan ginenean enpresatik irteteko proposamena egin zidaten. Momentu horretan burdindegiaren ardura hartzea erabaki nuen.

Zer eman dizue dendak?

Julen: Denda gure etxea izan da. Amak eta aitak txikitatik lan egin dute dendan eta ordu asko egin dugu bertan. Eskolara aitagaz eta amagaz bajatzen ginen eta dendan denerik egin dugu: eskolako lanak, futboleko arropak aldatu... Azken urteotan dendaren ardura hartuta, gurasoek hasitako proiektuari jarraipen bat eman diot. Erraza izan da, txikitatik ikusi dugunagaz jarraitzea izan da.

Ixteko erabakia gatxa izan da?

Julen: Bai, oso gatxa. Gure dendak eman beharrekoa ematen du oraindino, baina ikusten dugu tendentzia beheranzkoa dela. Kasualitatez, beste lan eskaintza bat egin didate, eta etxekoon artean berba

eginda, denda ixtea erabaki dugu denon artean. Denda txikiok eta autonomook geroago eta gatzago dugu aurrera egiteko.

Espe: Internet bidezko salmenta da, batez ere, gu lako dendentzat mehatxua.

Bezeroengandik maitasun handia jasotzen zabilazte.

Iker: ANBOTOn ixtera goazela idatzi zenutenetik mundu guztia mezuak bidaltzen hasi da.

Espe: Guretzat oso eskertzekoa da jendea kariño honegaz agurtzera etortzea.

Julen: Oso bezero fidelak izan ditugu, bai Traña-Matienakoak eta baita Abadiñoako auzo guztietakoak ere. Eta Durangaldeko beste herrietakoak ere bai. Urteetan hortxe egon dira, aita dendan zegoenetik. Eskertzen dugu konfiantza horregaz jarraitu izana. Denek ulertu dute erabakia eta esan didate, niretzat ona bada, pozten direla. Oso eskertuta gaude.

Oso bezero fidelak izan ditugu, bai Traña-Matienakoak eta baita Durangalde osokoak ere. Urteetan hortxe egon dira, aita dendan zegoenetik

Hainbeste urteren ondoren, izango duzue anekdotaren bat kontatzeko.

Julen: Pilotariendako eskuak babesteko takoak egiteko materiala saltzen genuen eta Pablito Berasaluze eramaten hasi zen. Beste pilotariei ere gustatzen zitzairen eta Pablitori eskatzen zioten. Aimar Olaizolak eta beste hainbatek erabili dute. Gero, Pablito jubilatu zenean, Ibai Zabala hasi zen erosten, eta harek ere Bengoetxeari eta Urrutikoetxeari pasatzen zien. Prezioa igo behar genuen, baina 22 euro balio zuenez eta zenbaki hori pilota munduan berezia denez, ez igotzea erabaki genuen. Azkenak Aitor Elordiri saldu genizkion. Denda itxi behar dugula enteratu zen eta deitu egin zigun, hemen genituen takoak eskatzeko. Ematen duenez zorte ona eman zion, asteon irabazi egin du-eta partidua.

Lau-hortza

Ibai Zabala
Gandarias
Irakaslea



Aniztasunaren tranpan

Azkenaldian bada zenbait politikariren ahoak eta hainbat txostenen orrialdeak bustitzen ari den hitz bat: eleaniztasuna. Gure hizkuntzaren arnasa ito nahian aritu den elebidun hitzaren alaba dela esango nuke; bera ordeztara datorrena, nola forman hala funtzioan.

Ez ezazu pentsa, irakurle, hizkuntzak ezagutzearen eta ikastearen kontra nagoenik, ezta gutxiago ere; baina bai horren aitzakian erdalzaleak zabaltzen ari diren mezu tranpatiaren aurka. Zeren, gure lurrean, euskaldunak eta beren ama hizkuntzarekin batera mugitu diren migranteak baikara, nagusiki, elebaker ez direnak. Guk izan behar dugu eleaniztun, guretzat aberasgarria denaren zuribidean; erdal elebakkarak, nagusi den hizkuntza hegemoniko horren jabe baino ez direnak, lasai asko bizi diren bitartean.

Horrek argi eta garbi erakusten digu hizkuntza aniztasuna ez dugula, nahiz eta hala beharko lukeen, berdin arteko bizikidetzara, hizkuntza hegemoniko batek besteekiko ezartzen duen isilpeko dominazio egoera baizik. Alegia, aberastasunaren eta errespetuaren adierazgarri izan beharko lukeenak, praktikan, mendeko izatera garamatzala.

Beraz, diagnostikoa argia da: aniztasunaren aldarria berea arriskuan ikusten ez duenak egingo du beti, eta, tamalez, euskara ez dago tropel horretan. Hemen, Euskal Herrian, euskarari dagokio aginte-makila izatea, euskara da funtzio nazionalak bete behar dituen, hori baita bere biziraupena bermatuko duen bidea. Betiere Euskal HerriKO hizkuntzak errespetatuz, noski, baina Euskal HerriARENA zein den argi izanda.

Smurfit Kappa
Central forestal

Smurfit Kappa
Nervión

55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN